

## Lehen hitza

Esku artean duzun liburu honek 2013an ikusi zuen estreinakoz argia, *Kazeta-idazkera: arauak eta estiloa hitzen jokoan* izenburupean. *Berrien Idazkera* ikasgairako eskuliburu gisa, orduko edizioa berritzea eta moldatzea izan da argitalpen honen xedea, 2020-2021ean indarrean sartu zen ikasketa-plan berrira egokitzeko asmoz.

Aurrekoan bezala, honetan ere egileek urteetan ikasgai honen irakaskuntzan eta euren kazetaritza-arloko ibilbide profesionalean berenganatu duten esperientzia baliatu dute eskuliburua sortu eta osatzeko. Horren harira, gure eskerrik onenak eman nahi dizkiogu Jose Inazio Basterretxea Polori. Batetik, bere ezagutza eta trebakuntza gurekin partekatzeko erakutsi duen eskuzabaltasunagatik. Bestetik, bera izan zelako 2013ko eskuliburuaren sustatzaile eta eragile nagusia eta hala islatzen da lan honetan; izan ere, bere horretan dirau hark ereindako haziak. Ezinezkoa litzateke emaitza hau haren ekarpenik gabe.

Bihar-etziko berriemailearentzako eskuliburua izan gura du honek. Oinarri-oinarrizkoa. Bere garatze akademikoan eta trebatze profesionalean, hainbat izango dira kazetarigaiak esku artean hartuko dituenak. Lehendabizikoa —hasiera-hasierakoa— izan nahi du lan honek, abiapuntua jarriko diona hautatu dituen unibertsitate-ikasketen bidean.

Zentzu zabalean hartu dugu berriemailea jomugan: paperezko kazeta nazional batean arituko den kazetaria; telebista-kamera eskuan duela, bailarako telebista batean soldata irabaziko duen profesionala; irratian ahotsa probatuko duen esataria; edo *blog* batean herriko udalbatzako berriak kontatuko dituen internauta.

Berria lantzeko irizpideak —behin-behinenak— azaldu nahi ditu eskuliburu honek. Abiapuntu klasikoa aurkituko du bertan ikasleak. Eta ikusi, ikusiko du ikasle arretatsuak hemen azaltzen direnak egokitzen eta doitzen joango direla ikasketa-prozesuan aurrera egin ahala: behin irakasle baten eskutik, beste behin ikaskide zaharrago baten eskutik, inoiz esperientzia propioak hala kontseilatuta... «berria» lantzea ez baita ezer irmo eta hila, zer bizia baino.

Kazetaritza, Publizitate eta Harreman Publiko eta Ikus-entzunezko Komunikazioa Graduetan ikasleek komunean duten adarraren oinarritzko ikasgaia da *Berrien Idazkera*. Lehen mailako ikasleek lehen lauhilekoan kazetaritzara egingo duten lehen hurbilketa da. Horregatik, ikasgaiak kazetaritzaren ezaugarri, teknika eta baliabideei

buruzko ikuspegi orokor bat eskainiko du. Oinarrizko kazeta-testuak landuko badira ere, edozein arlotako testuak modu argi, zehatz eta erakargarrian idazten ikasteko oinarrizko ezagutzak jaso eta honako gaitasun eta emaitzak erdietsi ahal izango ditu ikasleak:

### **Gaitasunak:**

1. Beren lengoaia eta egitura kontuan hartuta, kazetaritza-generoen ezaugarriak desberdintzea.
2. Egitura errazeko informazioak idaztea, generoari dagozkion ezaugarri narratiboak eta titulargintzari dagozkionak kontuan hartuta.
3. Gertakarien eta iturrien garrantzi informatiboa baloratzen ikastea.
4. Kazetari-jarduna garatzen den lan-, gizarte-, eta ekonomia-testuingurua ezagutzea, horrekin etxekotzea eta horretan trebatzea.

### **Emaitzak:**

1. Ikasleak gauza dira kazetaritza-generoen testu-ezaugarriak bereizteko.
2. Ikasleak gai dira egitura erraza duten albisteak idazteko, piramide irauliaren egitura erabiliz.
3. Ikasleek gertaera baten osagai garrantzitsuenak baloratu ditzakete.
4. Ikasleek ezagutzen dute kazetaritzaren lana egiteko zer eskubide eta legegumga dituzten, eta jarduera hori zer enpresa-testuingurutan gauzatzen den.

Ikasgaiak prentsa idatzia izango du jomuga nagusia, hedabideen edizio digitalak ere kontuan hartuko diren arren. Haien inguruan antolatuko dira eduki teorikoak eta praktikoak, batez ere albistearen eta haren ezaugarrien inguruan. Hortaz, ahaleginduko gara ikasleei albisteak ezagutzen ez ezik, albiste oso bat egoki idazten ere ikasteko tresnak ematen. Horretarako hiru ildo nagusi jorratuko dira ikasturtean zehar, hirurak ezinbestekoak direnak: **hizkuntza**, oinarrizko erreminta dena. **Ofizioa**, lege eta arauen menpe dagoena eta ezinbestekoa dena ezagutzea modu egokian jarduteko. Eta **trebakuntza praktikoa**, diziplina eta autoebaluazioa exijitzen dituen.

- **Hizkuntza.** Berriemaile-ikasleak argi eduki behar du ezinbesteko lan-tresna komunikatiboa duela hitza, berba, elea. Oinarrizko erreminta du hori. Hori gabe, motz ibiliko da bere jardunean. Ez du arrakastarik erdietsiko. Hizkuntza gramatikalki zuzena erabili behar du berriemaileak, komunikatzeko egokia, bere mintzakidea harrapatzeko bezain bizia eta alaia. Hizkuntzaren baliabide zabalak ezagutu behar ditu kazetariak. Oinarrizko hizkuntza herdoildu eta gutxi praktikatuak ez dio balioko... Abilezia pixka bat eskatzen zaio berriemaileari bere jardunean. Hizkuntza zurrun eta motzak ez du inoren begirik irekiko, ezta belarririk gozatuko ere.

- **Ofizioa.** Kazetaritza-ikasleak argi eduki behar du ikasten den jardun arautu bat dela albisteak idaztea. Bere legeak dituen, bere erregelak. Egitura propioa du albisteak. Ez bakarra, egia esan. Baina, berria ezin da edonola eman. Argi hitz egin behar du albisteak. Modu zehatz eta jakin batean hitz egin behar du. Ikasi eta landu beharreko artea da albistea ondo idaztea.
- **Trebakuntza praktikoa.** Ofizioaren langintzan, luze aritu behar du berriemaile-ikasleak. Arte orok eskatzen du diziiplina, baita kazetaritzak ere. Jardutea, zuzendua izatea, jarduna autoebaluatzea behin eta berriro... ezinbestekoak ditu berriemaile-ikasleak.

Ofizioaren deskripzioa eta trebakuntza praktikorako bideak —oinarrizkoak eta lehendabizikoak— jarri gura dizkio eskura liburu honek ikasleari.

Azken urteotan unibertsitatean nahiz hedabideetan garatu diren irizpideak gogoan hartu izan ez balituzte autoreok, liburu honek ez zuen inoiz argia ikusiko. Gure aurretik gaia landu duten guztiei, gure esker ona.

## ***ESKULIBURUAREN EGITURA***

Eskola teoriko eta praktikoen beharrei egokituta dago liburuaren gaitegia eta hamar atal nagusi ditu:

Liburuaren abiapuntuan, albistea idazten hasteko eta ikasteko funtsezkoa den sarrera edo lehen paragrafoa nola taxutu azaltzen da lehenengo atalean. Horixe izango du lehenengo eginbeharra ikasleak eskola praktikoa. Alegia, sarrera bat idaztea.

Goiburuaz dihardu hurrengo kapituluak: titulatzeko lan-tresnak deskribatzen dira bertan. Tituluak, azpigituluak, sumarioak, tartekiak... irakurleari laguntzeko tresna diskurtsibo eta grafiko horiek ikasiko dira atal horretan. Era berean, ikasi, ikasiko da elementu nabarmentzaile horiek eta albistearen osagai behinenak uztartzen eta elkarri lotzen.

Kazeta-estiloa deskribatzen da hirugarren urrats batean. Lau ardatz hartu behar ditu gogoan ikasleak. Bat: ondo informatzea da gauzak modu argian kontatzea. Bi: ondo informatzea da gauzak modu zehatzean kontatzea. Hiru: ondo informatzea da gauzak modu xumean kontatzea. Eta lau: ondo informatzea da gauzak modu erakargarrian kontatzea. Horixe da kazeta-estiloaren oinarria. Lau hanka horiek eutsi behar diote lanbidearen eraikinari.

Adierazpenak jasotzeko eta modu egokian idazteko erabiltzen diren estiloak eta horien ezaugarriak jasotzen ditu laugarren atalak. Ez da, ez, gutxieteko kontua adierazpenen idazkera, gero eta ohikoagoa baita egunkari gehienetan, euskaraz zein gazteleraz, modu okerrean jasota dauden adierazpenak irakurtzea.

Albistearen definizioa eskaintzen da beste kapitulu batean. Albistearen definizioa, albiste motak, albistearen osagaiak... Beste guztien gainetik, kazetariarentzako ezinbestekoa den kontzeptua landuko da atal horretan modu sakon-sakonean: piramide iraulia. Klasikoa bilakatu da fakultatean, baita hedabideetan ere.

Gertakariak baloratzeko irizpideak eskaintzen dira hurrengo atalean. Eta beste batean, informazio-iturriak. Zortzigarren kapituluak kazeta-generoetara hurbiltzea proposatzen du, hurrengo ikasturteetan sakonduko diren informazio-, interpretazio- eta iritzi-generoei gainbegirada, alegia.

Eskuliburuaren azken-aurreko atalean lantokia deskribatzen da: erredakzioa eta haren lan-antolamendua. Eta, era berean, lanbidearen irakurketa etikoa praktikatzen da.

Bukatzeko, euskarazko komunikazio-sektorearen irakurketa diakroniko bat egiten du eskuliburuak. Bertan, euskarazko prentsaren historia labur bat azaltzen da. Azaldu, azaltzen da Espainiako Gerra Zibilaren eragina euskarazko medioen sektorearen suntsipenean. Beste alde batetik, euskal kazetaritza modernoaren ezaugarriak eta nondik norakoak ere aztertu dituzte liburuaren egileek. Bai eta XXI. mendearenganako hurbilketa bat: nora doa euskarazko prentsa?

Bukaeran, oinarrizko bibliografia bat agertzen da eskuliburuan esandakoak sakontzeko.

Eta lehen hitz hauek amaitzeko, kontu bat, gogoan izan behar duzuna: zu zarena izango da kazetaritza bera.

# 1. Albistearen sarrera edo lehenengo paragrafoa

Sarrera edo albistearen lehenengo paragrafoa da elementurik garrantzitsuena, tituluaren ostean. Informazioaren elementu nagusiak biltzen ditu sarrerak. Elementu beregaina da, bai gramatikaren ikuspuntutik baita informazioaren ikuspuntutik begiratuta ere. Sarrera ez da tituluaren edo azpтитuluaren jarraipena, eta ez du tituluaren beharrik ulertu ahal izateko. Sarrera ez da albistearen laburpena. Sarreran jarriko da tituluan aurreratutakoa. Hots, sarrerak eta tituluak bat egingo dute beti.

Testuaren oinarriko elementuak eskainiko ditu kazetariak sarreran, eta albistearen gorputzean garatuko ditu elementu horiek ondoren. Sarrerak eskaintzen dio irakurleari gertaeraren berri izateko aukera, albiste osoa irakurri gabe.

Hortaz, sarrerak funtzio garrantzitsua betetzen du. Izan ere, albistearen lehenengo paragrafoak bi helburu nagusi bete behar ditu: batetik, albistearen elementu funtsezkoenak irakurleari modu erraz, azkar, argi eta ulergarrian eskaintzea eta, bestetik, irakurlea bereganatzea testua irakurtzen jarrai dezan.

Gertaera edo diskurtso baten ideia nagusia jaso behar du lehenengo paragrafoak eta bertan esandakoa ez da gorputzean berriz errepikatuko. Hots, sarreran aurkeztu dugun ideia nagusiaren inguruko datuak garatuko ditugu albistearen gorputzean, baina sarreran esandakoa errepikatu gabe.

Generoaren arabera, sarrerak ez ditu ezaugarri berberak bete behar. Izan ere, albisteetan informazioa aurkezten da sarreran modu zuzenean. Erreportajeetan, kroniketan eta bestelako interpretazio-testuen sarreren helburu nagusia da irakurlearen arreta erakartzea. Honako bi adibideetan irakur daitezke bi sarrera ezberdin:

Albistearen sarrera

## **Langile bat hil da Galdakaon, beharrean zela pieza bat gainera erorita**

Langile bat hil zen atzo Galdakaoko GHI Hornos Industrialesen, lan istripuz. Larrialdi zerbitzuek enpresara iritsi zirenerako hilda zegoen. 40 urteko gizonezkoa lanean ari zen eta pieza bat gainera erori zitzaion. Osalanek ikerketa zabaldu du. Lan istripuz Euskal Herrian aurreko hamargarren langilea da. (*Berria, 2020ko otsailaren 4a*)

Erreportajearen sarrera

### Ahotsa nagusi den sare soziala

Olatz Enzunza Mallona

Iraultza egin nahi du Clubhouse izena duen sare sozial berriak. Orain arte, begien bitartez elkarreragitea zen boladan dauden sare sozialen asmoa: argazkien eta bideoen bitartez, besteak beste. Clubhousek, ordea, irudiak eta testuak alde batera utzi ditu, eta ahotsaren aldeko apustu garbia egin du. Izan ere, ahotsa da aplikazio horretako komunikazio tresna bakarra. Oraingoan, iOS sistema duten telefonoetan bakarrik erabil daiteke. Hala ere, foro edo areto horietan eztabaidatu ahal izateko, beharrezkoa da gonbidapena izatea. (*Berria, 2021eko otsailaren 27a*)

## 1.1. KAZETARITZA KLASIKOAREN 5 W-EN FORMULA

Sarreran zein datu agertu behar diren erabakitzea ez da beti eginkizun erraza kazetariarentzat. Hildakoak eta zaurituak egon diren gertaeretan, nahiko erraz identifika daitezke tituluak eta sarrerek jaso behar dituzten datuak. Aitzitik, eguneroko informazioetan sarreran aurkeztu behar diren datuen hautaketak zailtasun gehiago planteatzen dizkio kazetariari. Normalean ez baita elementu bakarra nabarmentzen gainerakoan artean. Edozelan ere, datuen hautaketan, kazetariak bere interpretazioa egingo du eta interpretazio horren arabera erabakiko du zeintzuk diren sarreran aurkeztuko dituen elementurik garrantzitsuenak. Behin datuak aukeratuta, hurrengo urratsa izango da datuok nola aurkeztuko dituen pentsatzea eta erabakitzea. Egin behar horretan, oso lagungarria suertatzen da lehenengo paragrafo hori kazetaritza klasikoan albistek erantzun ohi dituen 5 galderen (5 W-en) arabera antolatzea: *nor(k)*, *zer*, *non*, *noiz* eta *zergatik* (Who, What, Where, When eta Why) galderei erantzuna emanez sarrera sortzea alegia.

Albistearen definizioa gogora ekarriz, gaur egun ez da derrigorrezkoa galdera horiei guztiei batera erantzutea; kazetariak interpretatu eta erabaki behar du zein den galderarik garrantzitsuenak, eta horren arabera kontakizuna antolatu, garrantzia gutxien duten elementuak bukaeran jarri.

Pertsonak eta haiei lotutako gauzak izaten dira albiste gehienek protagonistak. Hortaz, *nor* eta *zer* galderen erantzunek hartzen dute garrantzi berezia, sarreretan. *Zergatik* eta *nola* galderen erantzunek garrantzi berezia hartu ohi dute kazetaritza interpretatiboan. Hala ere, ezin dira ahaztu *zergatik* eta *nola* galderak informazio-kazetaritzan. Azkenik, *non* eta *noiz* galderei erantzun ohi zaie —salbu gertakari larrien kasuetan, non lehen mailako bihurtzen diren—. Informazio-sarrerak idazten ikasteko oso teknika baliagarria da 5 W-ei erantzunez sarrera moldatzea.

Albistearen sarrerak laburra, argia, irakurterraza eta ulergarria izan behar du eta gertaeraren inguruko elementu nagusien berri eskaini behar dio irakurleari.

## **1.2. SARRERA MOTAK**

Testuei hasiera emateko modu anitz dago. Sarrera modu batean edo bestean egitea kazeta-generoak agintzen du. Informazio-testuetan erabiltzen diren hiru sarrera mota nagusiak ikusiko ditugu guk hemen:

### **1.2.1. Sarrera zuzena**

Albisteetako ohiko sarrera da. Lehen lerrokadetan oinarritzko elementuen berri ematen du. Maiz lerrokada bakarrean kazetaritza klasikoaren bost galderei erantzuten saiatzen da kazetaria. Beste batzuetan, ordea, paragrafo bitan erantzuten die bost galderoi. Sarrera zuzena erabiltzen den testuetan berehalakotasuna duten egintzen berri ematen da. Hortaz, datuen interpretaziorik apenas izaten da.

Ikasgai honetan sarrera zuzena lehenetsiko dugu egingo ditugun ariketetan eta horrek esan nahi du sarrerako lehen esaldian, lehen puntua baino lehen, *Zer, Nor(k)/Nori, Non* eta *Noiz* jartzea ezinbestekoa dela.

Tituluak eta sarrerak bat egiten dute.

#### **50 urteko gizonetzko bat hil da Gorkizen, haren etxeak su hartu ondoren**

BILBO. 50 urteko gizonetzko bat hil zen Gorkizen (Bizkaia), atzo, haren etxeak su hartu ondoren. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak jakinarazi zuenez, sua 10:30 aldean piztu zen, Iberre zeharbideko etxebizitza batean. Ertzaintza, Udaltzaingoa eta suhiltzaileak hara joan zirenerako, gizona hilda zegoen. Oraindik ikerketa zabalik dago, baina badirudi hildakoa zegoen gelako koltxoian piztu zela sua. (*Berria, 2020ko urtarrilaren 8a*)

### **1.2.2. Zeharkako sarrera**

Erreportaje edo kroniketan sarri erabiltzen den sarrera da. Tituluan eta azpтитuluan jasotako ideiarik ez da islatzen zeharkako sarreran. Alegia, kazetaritza klasikoaren bost galderen erantzunik ez da agertzen. Horixe da sarrera mota honen ezaugarria: hasiera-hasieratik ez da oinarritzko informaziorik ematen. Gaur egun maiz erabiltzen dira zeharkako sarrerak kalitatezko prentsan, interpretazio-kazetaritzaren ikur bihurtu baitira.

Tituluak eta sarrerak ez dute guztiz bat egiten. Tituluan jasotakoa sarreraren bukaeran edo albistearen gorputzean joan daiteke.

#### **Finlandiako Gobernuak prest dago lau eguneko lan astea probatzeko**

Xabier Martin

Enpresari ordu gutxiago eman eta norberarentzat gehiago gordetzearen aldeko argumentuak ez dira berriak, baina bai Europako Batasuneko herrialde bateko lehen ministroaren ahotan entzutea, aurrekorik ez duen neurri bat iragartzeko, gainera:

«Pertsonak merezi dute familiarekin denbora gehiago egotea, maite dituztenekin, beren aisialdian eta bizitzaren beste esparruetan, esaterako kulturean; hori izan daiteke hurrengo urratsa lan bizitzari dagokionez». (*Berria, 2020ko urtarrilaren 8a*)

Sarrera horretan ez da inon azaltzen tituluan esandakoa; bai, ordea, bigarren paragrafoaren hasieran.

### **1.2.3. Interpretazio-sarrera**

Balorio eta interpretazio-elementuak —ez iritzi-elementuak— dira sarrera honen adierazle. Albistek azertu eta esplikatzeko erabiltzen dituzte kazetariak interpretazio-sarrerak eta hasieratik gogoetarako gonbita egiten zaio irakurleari. Erreportaje, kronika eta analisisetan erabili ohi da sarrera mota hau, ez horrenbeste informazio-testuetan.

#### **Nafarroako ekonomia %8,3 txikitu da**

Iker Aranburu

Marka hautsi du Nafarroako ekonomiak 2020. urtean; markarik kaskarrena, alegia. Estatistika zehatzak daudenetik 2009. urtea izan zen barne produktu gordina gehien jaitsi zen urtea, %2,6ko uzkuarekin. Datu hori txiki utzi du pandemiaren lehen urteak, %8,3 txikitu baita lurraldeko ekonomia. (*Berria, 2021eko urtarrilaren 29a*)

Aipatu sarrerez gain, batzuetan, galdegaiak gidatzen du sarreraren hasiera. Alegia, kazetaritza klasikoaren 5 galderetako bati erantzunez has daiteke lehenengo paragrafoa:

a) *Zer:*

Ohiko albistean, elementu nagusia izaten da, eta beste galdegileak baino maizago agertzen da. Sarrera egokia izan dadin, ezinbesteko elementua da. *Zer* galdegile garrantzitsuena denean, lehenengo paragrafoa galdera horri erantzunez has daiteke.

Tituluan eta sarreran ZER elementua nabarmentzen da:

#### **Auto gidari bat hil da Bizkaian, tren batek harrapatuta**

BILBO. Auto gidari bat hil zen atzo Gueñesen (Bizkaia), tren batek harrapatuta. Segurtasun Sailaren arabera, trenbide pasagune batean gertatu zen ezbeharra, 12:20 inguruan, FEVEren tren batek autoa aurrean eraman zuenean. Suhiltzaileek atera zuten gorpua auto barrutik. (*Berria, 2020ko martxoaren 24a*)

b) *Nor(k):*

Giza elementuari egiten dio erreferentzia. Protagonista ezaguna bada, *zer* galdegilea baino garrantzitsuagoa izan daiteke. Adibide honetan, *nor* elementua nabarmentzen dute tituluak eta sarrerak:



### **Alex Salmond absolbitu egin dute sexu-eraso delitu guztietatik**

Jone Bastida Alzuru

Alex Salmond Eskoziako lehen ministro ohia absolbitu egin dute leporatzen zizkioten hamahiru sexu erasoetatik. Haren aurkako epaiketak lau aste inguru irautea espero zen, baina, horren erdia pasatuta, atzo eman zuen argitara erabakia Auzitegi Nagusiak eta Salmonden aldekoa izan zen. (*Berria, 2020ko martxoaren 24a*)

c) *Noiz:*

Irrati eta telebistan prentsa idatzian baino garrantzi handiagoa izan ohi zuen, egunkari digitalak sortu arte. Gaur egun, edizio digitalak *orainkari* bilakatu dira eta *noiz* galdegilearen menpe daude sarean argia ikusi duten albiste gehienak. Nolanahi ere, prentsa idatzian izan daiteke galdegile garrantzitsuen *noiz*.

### **Bihar hasiko da Binakako Txapelketa, Irisarrin**

TRINKETA. Bihar ekingo diote maila nagusiko Binakako Txapelketari, Irisarrin (Nafarroa Beherea). Darmendrailek-Lambert eta Monce-Ducassouk jokatu dute estreinako norgehiagoka, 16:00etan. Hurrengo egunean, berriz, bi partida jokatu dituzte Donibane Garazin (16:00): Olzomendi-Sanchez, Intxauspe-Gixanduten aurka; eta Larralde anaiak, Ospital-Amuleten kontra. (*Berria, 2021eko martxoaren 12a*)

d) *Non:*

Gertakarietan garrantzi handiko datua da lekua. Are gehiago kontuan hartzen badugu hurbiltasuna dela, besteak beste, irakurleengan interesa sortzen duen elementu garrantzitsua. Salbuespenak salbu, *noiz* galdegilea bezala, ez da ohikoa sarrerako lehenengo pasartean *non* galdegilea agertzea.

*Non* galderari erantzuten diote tituluak eta sarrerak:

### **Euskal Herrian beste 46 lagun hil dira, eta jadanik 312 dira zenduak**

Euskal Herrian ia 7.000 pertsonari diagnostikatu diete koronabirusa, eta, gaitzaren ondorioz, 312 lagun hil dira guztira. Atzo beste 46 heriotzaren berri eman zuten. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak jakinarazi zuenez, Bizkaian 24 lagun hil ziren herenegun (dena, 103); Araban, beste sei (109); eta Gipuzkoan, beste lau (29). Nafarroan hamabi heriotzaren berri eman zuen gobernuak, eta guztira 70 dira hilak. Ipar Euskal Herrirako ez dago datu zehatzik, Frantziako osasunaren agentziak ez dituelako datuak herrialdeka bereizten. (*Berria, 2020ko martxoaren 29a*)

e) *Zergatik eta nola:*

Kazetaritza klasikoaren 5 galderen eskemari jarraituz, *zergatik* eta *nola* galderen erantzunak albistearen lehenengo edo bigarren paragrafoan agertu ohi dira, ez, ordea, lehenengo paragrafoaren hasieran. Aitzitik, egun gero eta ohikoagoa den interpretazio-kazetaritzan bi galdegile horiek garrantzitsuenak bilakatu dira sarreran.

Areago, Euskal Herriko kazetari gehienek galdera horien erantzuna sarreran sartu ohi dute.

Sarrera honetan *nola* galderari erantzuten zaio hasiera-hasieratik:

### **Alarma egoera 15 egunez luzatuko dela iragarri du Pedro Sanchez Espainiako presidentek**

Ministroz inguratuta inguratuta, serio eta ahots trinkoz, alarma egoera 15 egunez luzatuko dela azaldu zuen atzo Pedro Sanchez Espainiako presidentek Moncloan egindako agerraldian. COVID-19ak sortutako krisi egoera kontrolatu ahal izateko, neurriak zorroztea ezinbestekoa dela argudiatu zuen eta ondorioz, alarma egoera, gutxienez, apirilaren 12ra arte mantenduko dela adierazi zuen.

### **1.3. OHIKO AKATSAK**

Arestian aipatu bezala, ikasgai honetan sarrera zuzena landuko dugu ariketetan. Sarrerak lehenengo aldiz idatzi behar dituen ikasleak zalantza ugari izaten ditu hasierako paragrafoan zer informazio sartu eta informazio hori nola antolatu erabakitzeke. Horren ondorioz, maiz errepikatzen diren akatsak honako hauek izaten dira:

- **Zeharkako sarrera idaztea: *zer, nor, non, noiz* eta *zergatik* galderei ez zaie lehenengo lerroan erantzuten.**

19:30ean sortu zen sua, emankizuna hasi eta ordu erdi pasa zenean. Lau anbulantzia eta bost polizia kotxe bertaratu ziren gertaeraren tokira. Suhiltzaileek bi ordu eman zituzten sua itzaltzen eta ondorioz, **7 lagun hil eta 20 zauritu ziren Rio de Janeiroko O Carioca antzokian izandako sutean atzo.**

- **Sarrera tituluaren jarraipen gisa idaztea: hurrengo gaien jaso den moduan, titulu informatiboak ezinbestean 3 galdegairi (*zer, nor, non*) erantzun behar die eta horiek, era berean, sarreraren lehen lerroan agertu behar dute.**

Titulua: **Zazpi lagun hil eta hogeitazauritu dira Rio de Janeiroko antzoki batean izandako sutean**

Sarrera: Lehenengo zantzuaren arabera, 19:30ean sortu zen sua, emankizuna hasi eta ordu erdi pasa zenean. Oraindik argitu gabe dago zerk sortu zuen sua baina litekeena da arduragabekeria batek eragin /piztu izana.

- **Sarrerarako lehen esaldian *zer, nor, nori, non* eta *noiz* galdegaiei erantzunik ez ematea edo horietako bati ez erantzutea.**

Zazpi lagun hil eta hogeitazauritu ziren Rio de Janeiroko O Carioca antzokian izandako sutean. Guztiak 30 eta 75 urte bitartekoak dira zerbitzu medikuek emandako informazioaren arabera. Oraindik argitu gabe dago zerk sortu zuen sua baina litekeena da arduragabekeria batek eragin izana. (*Noiz galdegaiei erantzuna ematea falta da*)

Zazpi lagun hil eta hogeï zauritu ziren atzo O Carioca antzokian izandako sutean. Guztiak 30 eta 75 urte bitartekoak dira zerbitzu medikuek emandako informazioaren arabera. Oraindik argitu gabe dago zerk sortu zuen sua baina litekeena da arduragabekeria batek eragin izana. (**Non galdegaiari erantzuna ematea falta da, O Carioca antzokiaren izena da, geografikoki kokatu behar da gertaera**)

Rio de Janeiroko O Carioca antzokian sutea izan zen atzo. Guztiak 30 eta 75 urte bitartekoak dira zerbitzu medikuek emandako informazioaren arabera. Oraindik argitu gabe dago zerk sortu zuen sua baina litekeena da arduragabekeria batek eragin izana. (**Zer eta Nor galdegaiei erantzuna ematea falta da**)

– **Sarrera noiz galdegaiari erantzunez hastea.**

Atzo Rio de Janeiroko O Carioca antzokian izandako sutean zazpi lagun hil eta hogeï zauritu ziren. Guztiak 30 eta 75 urte bitartekoak dira zerbitzu medikuek emandako informazioaren arabera. Oraindik argitu gabe dago zerk sortu zuen sua baina litekeena da arduragabekeria batek eragin izana.

– **Sarreran aditz-denbora desegokia erabiltzea.**

Titulua: **Zazpi lagun hil eta hogeï zauritu dira Rio de Janeiroko antzoki batean izandako sutean**

Sarrera: Zazpi lagun hil eta hogeï zauritu dira atzo Rio de Janeiroko O Carioca antzokian izandako sutean. Guztiak 30 eta 75 urte bitartekoak dira zerbitzu medikuek emandako informazioaren arabera. Oraindik argitu gabe dago zerk sortu duen sua baina litekeena da arduragabekeria batek eragin izana.

#### **1.4. SARRERAK ONDO IDAZTEKO AHOLKUAK**

«Lehenengo paragrafoan lepotik heldu behar zaio irakurleari, hatz lodia trakean sartu bigarren paragrafoan, eta estu hartu albistearen azken lerrora arte». Paul O'Neil idazle estatubatuarren hitzak dira horiek (Randall, 1999: 165).

Argi dago sarrerak irakurlea kateatu behar duela eta irakurtzen jarraitzeko grina piztu behar diola. Horixe da sarreraren funtzioa. Hori lortzeko hainbat iradokizun proposatzen zaizkizu:

1. Sarrerak zuzena, argia, laburra eta erakargarria izan behar du. Sarrera irakurtzean, irakurleak buruan pentsamendu bakarra izatea lortu behar da: «Albistea irakurri nahi dut». Hori soilik lortuko da daturik garrantzitsuenak eta zehatzenak aurkeztuz. Sarrera zamatuko duten datuak testuaren gorputzean erabiliko dira, ez sarreran.
2. Sarrerak bat egingo du tituluan azaldutakoarekin. Sarreraren lehenengo esaldiak eta tituluak oso antzekoak —ia esaldi berbera— izan behar dute.

3. Sarrerak izan behar du beregaina, bai gramatikaren ikuspegitik baita biltzen duen informazioaren aldetik ere. Ez du hurrengo paragrafoen beharrik, ulertua izateko.
4. Tituluetan bezala, esaldi osoek eta ondo ordenatuek osatuko dute sarrera: *subjektu* bat, *aditz* bat, eta *predikatua* duten esaldiek alegia. Lehenengo paragrafoak izan behar du ulergarria. Salbuespenak salbuespen, oro har, esaldi bakunek hobeto funtzionatzen dute. Horregatik ez da komeni menpeko esaldirik erabiltzea sarreran. Horrelakoek irakurketa zaildu egiten baitute. Era berean, ez da oso txukuna zenbakiekin edo erakunde ofizialen izenekin sarrerari hasiera ematea, xarma kentzen baitiote prosari.
5. Ez da komeni sarrera adierazpenekin hastea. Halere, erabiltzekotan, kontuz! Aukeratu adierazpen esanguratsua, laburra eta indartsua dena. Testua landu gabe dagoen itxura eman dezakete adierazpen luzeegiek eta aspergarri suerta daitezke irakurlearentzat.